

GIPUZKOAKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO GIZARTE KONTSEILUA

2023

urteko txostena

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



HERRITARREN
PARTAIDETZA

Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua

Herritarren partaidetzarako eta herritarren partaidetzari buruzko uztailaren 8ko 1/2010 Foru Arauan aurreikusitako tresnak garatzeko eta aplikatzeko organo aholku-emailea da.

2023 urteko txostena



aurkibidea

1. Aurkezpena
2. Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua
3. Plangintza 2023
4. Jarduera
5. Emaitzak

1 aurkezpena



Txosten honek

Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren **2023 urteko kudeaketa-txostena edo memoria** jasotzen du.

Bere zeregina hirukoitza da:

- Gizarte Kontseiluko organoek 2023ko ekitaldian egindako jarduerak, eta erakunde eta pertsona protagonistak zehaztea.
- Jardueraren emaitzak erakustea.
- Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak 2023an egindako ibilbidea baloratzea.

Egitura

Horretarako, dokumentuaren egitura honako hau da:

- Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren aurkezpena: zer da, funtzioak eta organo nagusiak.
- 2023rako plangintza: asmoa.
- Urtean zehar egindako jarduera; eta erakunde eta pertsona protagonistak.
- 2023 urteko emaitza zehatzak; eta balorazioa.

2 Gizarte Kontseilua



Zer da

Herritarren partaidetzarako eta Herritarren partaidetzari buruzko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauan aurreikusitako tresnak garatzeko eta aplikatzeko **organo aholku-emailea** da.

Funtzio orokorrak

Gizarte Kontseiluak honako eginkizun orokor hauek ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari **aholku ematea** herritarren parte-hartzearen arloko helburuak eta jarduerak zehazteari buruz.
- Herritarren parte-hartzearen arloan Foru Aldundiak egin beharreko jarduera-proposamenei buruzko **informazioa ematea**, eta, bereziki, **Partaidetza Programari** buruzkoa.
- **Parte hartzeko prozesu bakoitzaren** azken ebaluazioari buruzko **informazioa** ematea.
- Herritarren parte-hartzeari buruzko **foru-araua eta hura garatzeko araudia** aldatzeko proposamenei buruzko **informazioa ematea**.

Osoko Bilkura eta Goberno Batzordea

Barneko antolaketa egiturari dagokionean, 2 organo nagusi ditu Gizarte Kontseiluak, bakoitza eginkizun zehatzekin:

- **Osoko Bilkura:** Gizarte Kontseiluaren eztabaida, proposamen, informazio eta erabakimeneko goi organoa da.
- **Gobernu Batzordea:** Osoko Bilkurak izendatua, eta eginkizun operatiboagoekin.

3 plangintza



2023rako asmoa

Gizarte Kontseiluaren funtsezko eginkizunez gain, 2023. urtean **aurreko urtean planifikatutako ekintzak taxutu eta gauzatu dira.**

Era berean, 2023an, Gizarte Kontseiluak 2019-2023 Herritarren Partaidetza Programa ebaluatu du, 2019-2023 ziklo politikoari amaiera emanez.

Azkenik, **2023-2027 ziklo politiko berriari** ekiteko urratsak eman ditu Kontseiluak.

2023an aurreko urtean Kontseiluak marraztutako ideiak eta proposamenak gauzatu dira

2022an, Gizarte Kontseiluaren ibilbidea honako hau izan zen:

zk°	Organoa	Data	Gaia
1	Osoko Bilkura	2022 apirilak 4	2021eko urteko txostena onartzea 2022ko plangintzaren oinarriak
2	Osoko Bilkura	2022 ekainak 6	Herritarren partaidetzarako mapa edo ekosistema Hurrengo hilabeteetarako proposamena: lantaldeak
3 a	Osoko Bilkura	2022 uztaillak 13	Aurrekontu irekiak 2022 Lantaldeak
3 b	"Solosaldiri publikoak" lantaldearen 1 bilera	2022 uztaillak 13	Taldearen lanerako oinarriak
3 c	"Partaidetzarako tresna-kutxa" lantaldearen 1 bilera	2022 uztaillak 13	Taldearen lanerako oinarriak
4	"Solosaldiri publikoak" lantaldearen 2 bilera	2022 irailak 7	UIK, EHU uda ikastaroekin bilera
5	"Solosaldiri publikoak" lantaldearen 3 bilera	2022 irailak 22	Solosaldiri publikoaren programaren lehen zirriborroa
6	"Solosaldiri publikoak" lantaldearen 4 bilera	2022 urriak 11	Taldearen barne-bilera
7 a	Osoko Bilkura	2022 azaroak 10	2 taldeek egindako urratsen aurkezpena Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren hurrengo urratsak
7 b	"Partaidetzarako tresna-kutxa" lantaldearen 2 bilera	2022 azaroak 10	Tresnen informazio-fitxaren ereduaren lehen bertsioa definitzea
8	Lantaldearen barne-lana	2022 abendua	"Solosaldiri publikoaren" proposamena garatzea
9	Lantaldearen barne-lana	2022 abendua	"Parte hartzeko tresnen kutxaren" proposamena garatzea
10	Osoko Bilkura	2023 urtarrilak 16	2 taldeek egindako urratsen aurkezpena Gizarte Kontseiluaren 2022 urteko lana ebaluatzea

4 jarduera 2023



Gipuzkoako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren jarduera, 2023an, honela gauzatu da:

Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkuraren 3 saio

2023an, Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura 3 aldiz bildu da.

“Solosaldiri irekiak” programaren garapena

2023an "Solosaldiri irekiak" programaren 3 saioak garatu dira, Gizarte Kontseiluak bultzatuta eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatuta, UPV/EHUko Udako Ikastaroen Fundazioarekin lankidetzan.

Programaren helburua izan da herritarren parte-hartzeari lotutako gai interesgarriak buruzko elkarrizketa publiko bat sortzea Gipuzkoako pertsona eta erakunde sozialekin: herritar antolatutak edo ez, arduradun politiko eta teknikoak, enpresa espezializatuak eta unibertsitateko langileak.

Programa garatzeko, Gizarte Kontseiluko lantaldeak programaren garapenaren jarraipena eta egiaztatzea egin du astero, 2023ko urtariletik martxora.

“Tresna-kutxa” txostenaren zirriborroa

2023an, "Herritarren partaidetzarako tresnen kutxa" lantaldea bi aldiz bildu da, 2023ko martxoan eta maiatzean.

Gipuzkoan dagoeneko egiten den proposamenari ezagutza, ikaskuntzak eta balio erantsia sortzeko interesgarriak diren esperientziak identifikatzea eta biltzea izan da bere zeregina.

Taldearen lana abiapuntu hartuta, Antxon Gallegok idatzi du "Herritarren partaidetzarako tresnak" txostena, lehen bertsioan.

jarduerara 2023

2023ko ibilbidea

Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak 2023an egindako ibilbidea koadro honetan laburbiltzen da:

zk°	Organoa	Data	Gaia
1	Osoko bilkura	2023ko urtarrilak 16	- 2 lantaldeek emandako urratsei buruzko informazioa eta kontrastea - Gizarte Kontseiluak 2022an egindako lanaren ebaluazioa
2	"Solosaldiri irekiak" lantaldeak bultzatutako jarduerak	2023ko urtarrilak 26	- "Solosaldiri publikoek" lehen topaketa burutzea: NAHI: Parte hartu ala ez parte hartu, hori da gakoa
3	"Solosaldiri irekiak" lantaldeak bultzatutako jarduerak	2023ko otsailak 25	- "Solosaldiri publikoek" bigarren topaketa burutzea: AHAL: Parte hartu, nahia eta ezina
4	"Partaidetzarako tresna-kutxa" lantaldearen bilera	2023ko martxoak 2	- Bildutako informazioa eta esperientziak eta tresnak hautatzeko irizpideak bateratzea, eta txostenaren behin-behineko indizea batera definitzea
5	Osoko bilkura	2023ko martxoak 2	- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzarako 2019-2023 Programaren ebaluazio kualitatiboa - 2 lantaldeen aurrerapenen aurkezpena
6	"Solosaldiri irekiak" lantaldeak bultzatutako jarduerak	2023ko martxoak 24	- "Solosaldiri publikoek" hirugarren topaketa burutzea: JAKIN: Partaidetza-on
7	"Partaidetzarako tresna-kutxa" lantaldearen bilera	2023ko maiatzak 12	- Txostenaren lehen bertsioaren edukien azalpen sintetiko eta baterako balorazioa. Txostena gida bat izateko gomendioa: parte hartzeko hainbat tresna ezagutzen lagunduko duen eta planteatzen diren helburuen arabera tresnarik egokiena hautatzea erraztuko duen bilketa-dokumentua
8	Osoko bilkura	2023ko maiatzak 12	- Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluaren 2022ko urteko txostena onartzea - Gizarte Kontseiluko pertsonak eguneratzeko prozedurari buruzko informazioa - "Tresna-kutxa" lantaldearen aurrerapenen aurkezpena eta "Solosaldiri publikoek" jardueraren balorazioa - Legegintzaldiaren eta ziklo politikoaren itxiera
9	"Partaidetzarako tresna-kutxa" lantaldeak bultzatutako jarduerak	2023ko udaberria-uda	- "Herritarren partaidetzarako tresnak" txostenaren lehen bertsioa idaztea
10	Barruko lana	2023ko udazkena	- 2023-2027 aldirako Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua eratzea

Gizarte Kontseiluko erakundeak eta pertsonak 2023an

Hona hemen Kontseiluaren 2023ko Osoko Bilkuraren 3 saioetan parte hartu zuten erakundeen eta pertsonen xehetasunak:

Erakundeak	Pertsonak	1 bilkura 2023/01/16	2 bilkura 2023/03/02	3 bilkura 2023/05/12
Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-Sozialaren Zuzendaritza	Mikel Pagola	●	●	●
Donostiako Udala	Amaia Agirreolea	●		
Tolosako Udala	Garikoitz Lekuona	●	●	●
Aretxabaletako Udala	Amaia Murgiondo			
Amezketako Udala	Jon Burgaña	●		●
Gazteriaren Euskal Kontseilua	Julen Sasiain		●	
Nagusilan	Mikaela García			
AGIJUPENS	Joxe Agustín Arrieta			●
Matia Fundazioa	Gerardo Amunarriz			
Gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE)	Izaskun Azurmendi	●		
Foru Aldundiko GUNEA	Nerea Isasi/Penélope Agirre		●	●
Gasteizko Udala	Miren Martiarena	●	●	●
Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	José Luis Pérez "Kotelo"	●	●	
Herri-administrazioetako kolaboratzailea eta aholkularia herritarren parte-hartzean (Ibatuz)	Antxon Gallego	●	●	●
EHU Unibertsitatea	Ainhoa Novo	●	●	●
Deusto Unibertsitatea	Ane Ferran	●	●	
Mondragon Unibertsitatea	Nagore Ipiña		●	●
Herritarren parte-hartzean, teknologian eta sare sozialetan aditua (APTES)	Adriana Martínez	●	●	●
Herritarren parte-hartzean, teknologian eta sare sozialetan aditua	Nerea Zusberro Alberro			
Foru Aldundiko Aurrekontuen Zerbitzua	Koro Iriarte	●		●
Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua	Itziar Calvo	●	●	●
Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua	Olatz Dañobeitia	●	●	
Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua	Itsaso Olaizola	●	●	●

protagonistak

protagonistak

Lantaldeak osatu dituzten erakundeak eta pertsonak

Hona hemen lantalde bakoitzean parte hartu duten erakundeak eta pertsonak:

Erakundeak	Pertsonak	1 lantaldea: "Solosalদি irekiak"	2 lantaldea: "Partaidetzako tresna-kutxa"
Donostiako Udala	Amaia Agirreolea	●	
Tolosako Udala	Garikoitz Lekuona		●
Amezketako Udala	Jon Burgaña	●	
Gasteizko Udala	José Luis Pérez "Kotelo"		●
Herri-administrazioetako kolaboratzailea eta aholkularia herritarren parte-hartzean (Ibatuz)	Antxon Gallego		●
Herritarren parte-hartzean, teknologian eta sare sozialetan aditua (APTES)	Adriana Martínez	●	
EHU Unibertsitatea	Ainhoa Novo		●
Mondragon Unibertsitatea	Nagore Ipiña		●
Gazteriaren Euskal Kontseilua	Maialen Olabe	●	
Gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE)	Izaskun Azurmendi	●	
AGIJUPENS	Joxe Agustín Arrieta	●	
Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua	Olatz Dañobeitia	●	
Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua	Itsaso Olaizola		●

Lantalde bakoitzak bere egiteko, erlazionatzeko eta aurkitzeko moduak zehaztu ditu –aurrez aurre edo *online*–:

- 2023ko urtarriletik martxora, 1. lantaldeak asteroko koordinazioa izan du Zuzendaritzako taldearekin eta Aztiker aholkularitzarekin, "Solosalদি irekien" 3 saioen antolaketan eta azken zehaztapenean bere begirada eta ikuspegia emateko. Gainera, taldeko pertsona batzuek berariak parte hartu dute saioetan.
- 2 lantaldeak aurrez aurreko 2 lan-saio egin ditu, osoko bilkuraren deialdiak aprobetxatuz –2023ko martxoan eta maiatzean–. Gainera, Zuzendaritzak Ibatuz aholkularitzako Antxon Gallegoren laguntza izan du txostenaren lehen bertsioa idazteko.

5

emaitzak

ongietorriak !!!
2023. 03. 02

Ainhoa - Olatz - Miriam - Nagore - Ane - Julen - Mikel - Garizola - Izar - Verena - Mikel - Antxon - Harro - Faraola - Zorione - Icar

Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua

1. 2019-2023 Partaidetzaren Programaren ebaluazioa / eragina
30 ekintza garatuta
Per egun duite besteez? Abunduzen programa da

2. LAN-TALDEAK
ndasoldiak
50-60 pax
partaidetzaren presentzia? Berriraketa presentzia mugatuta
EMAITZAK ERAGIN PROGRAMA BERRIRAKETA
HERRITARREN PARTAIDETZA

3. KORONBERO URTEAK

4. TREINAK
nabiaz organoak
medio partaidetza en irabizgarria
sustentatzen irabizgarria da irabizgarria
laguntza
laguntza
emaitza eraginkor
emaitza eraginkor

5. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

6. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

7. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

8. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

9. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

10. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

11. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

12. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

13. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

14. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

15. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

16. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

17. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

18. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

19. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

20. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

21. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

22. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

23. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

24. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

25. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

26. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

27. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

28. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

29. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

30. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

31. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

32. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

33. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

34. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

35. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

36. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

37. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

38. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

39. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

40. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

41. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

42. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

43. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

44. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

45. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

46. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

47. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

48. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

49. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

50. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

51. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

52. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

53. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

54. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

55. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

56. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

57. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

58. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

59. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

60. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

61. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

62. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

63. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

64. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

65. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

66. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

67. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

68. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

69. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

70. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

71. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

72. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

73. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

74. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

75. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

76. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

77. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

78. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

79. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

80. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

81. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

82. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

83. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

84. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

85. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

86. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

87. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

88. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

89. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

90. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

91. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

92. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

93. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

94. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

95. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

96. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

97. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

98. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

99. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

100. HERRITARREN PARTAIDETZAREN PROGRAMAREN

emaitzak 2023

2023 urteko emaitzak

Gizarte Kontseiluaren 2023ko jarduera aztertuta, urteko emaitzei buruzko ondorioak atera daitezke. Emaitzak, **titularretan**, honako hauek dira:

Gai formalak

- 2022ko jarduerari buruzko urteko txostena onartzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzarako 2019-2023 Programaren ebaluazioa.
- 2019-2023 legegintzaldiaren amaiera.
- Gizarte Kontseilua osatzen duten erakundeak berritzea.

Lantaldeen aurrerapenak

- "Solosalদি publikoen" 3 jardunaldiak antolatzea, garatzea eta ebaluatzea, UIKekin lankidetzan (UPV/EHUko Udako Ikastaroak).
- "Herritarren partaidetzarako tresnak eta esperientziak" bilatzeko eta biltzeko lantaldea garatzea eta lehen zirriborro-txostena egitea.



Gai formalak

Ebaluazio teknikoaz gain, Gizarte Kontseiluak programaren ebaluazio kualitatiboa egin du. Horrela, kideek beren **garapenaren eta eraginaren titular bat** jarri dute. Zehazki, honako hauek:



Argitzalez jakitun badira ere, bide/norantzaren egokitasuna azpimarratu dute Kontseilu kideek.

- Aldaketa-teoria, parte hartzeko programaren eragina neurtzeko, gauzatzetik harago.
- Partaidetza programaren egindakoa oso baliagarria da etorkizunaren erronkei aurre emateko.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak 2019-2023 Partaidetza Programaren ebaluazioa aurkeztu du. Partaidetza-kultura zabaltzea, prozeduratzea eta protokolizatzea eta zerbitzu digitaletan aurrera egitea dira erronka berri nagusiak.
- Herritarren eta gazteen partaidetzak dituen erronka berriei aurre egiteko garaia. Pandemiaren geroztiko garaiak partaidetza mekanismo eraberrituak eskatzen ditu.
- Zeharkakotasuna, ardura maila programarekin bat dator. Plana onartu zuten sailen inplikazioa.
- Herritarren partaidetza sustraitu da, etorkizunerako begirada txertaturik.
- Programa ambizioso(egi) bati aurre egin asmoz, Kontseilu operatibo(ago) baten ahaleginak emaitzak eman ditu.
- Partaidetza programak hainbat eremutan izan du garrantzia.
- Gipuzkoako herritarren etorkizunerako partaidetzarako oinarri esanguratsuak finkatu ditu Aldundiak 2019-2023 epealdian.
- Helburuen garrantzia eta inplikatu den aurrekontuarekiko aldea. Hiritarrekin kontaktua areagotu, baldin eta nahi badute.
- Herritarren partaidetza... Herritarrak, non? Kontseiluko kideen inguruko gogoetaren beharra (21etik, 6 "herritarrak").

Era berean, Kontseiluak **mezu kolektibo hauek eman ditu programaren ebaluazioari buruz:**

- **Programaren garapenaren benetako inpaktua neurtzen lagunduko duten metodo berrien beharra**, aldaketaren teoria txertatuz eta eragileen begiradak barneratuz (Kontseilua, herritarrak). Komeni da prozesuak ebaluatzea, eragin ukiezinak ukitzea eta harremani arreta jartzea.
- **Partaidetza Programaren lidergoaz: Programa hau Aldundiarena da, eta ez soilik Partaidetza Zuzendaritzarena.** Horretan urratsak ematen goaz, nahiz eta oraindik falta den benetan zeharkako politika gisa garatzeko. Ildo horretan, aliantzen garrantzia azpimarratu da: "gure ekosistema zabalda da, eta zabalagoa izan behar da".
- **Programa berrirako ikuspegi estrategiko berri baten beharra**, plangintza estrategiko estatikoak gaintutuko dituen. Honako hau da gomendioa: plangintza aldaketaren teoriarekin lotzea –helburua, ukiezinak eta prozesuetan bilatzen diren ikaskuntzak–; norabide bat eta iritsi nahi den agertoki bat markatzea; epe laburrerako ekintzen lehen multzo bat definitzea, sortzen diren premia berriei erantzuteko adinako malgutasunarekin.
- **2023-2027 aldirako erronkak:** (1) Prozeduretan parte-hartzea eta zeharkakotasuna integratzea, baita Aldundian ere; (2) Parte-hartze prozesu eta proiektuetan nor falta den beti kontuan izatea, eta pertsona/erakunde horiengana nola iritsi.

Gai formalak

3

2019-2023 legegintzaldiaren amaiera, 2023ko maiatzaren 12ko osoko bilkuran. Amaiera formalari Kontseiluko pertsonen hausnarketak gehitu zaizkio. Azken mezu bat bazenu, zein izango litzateke?

“

Sekulako lana egin du Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak Kontseiluan. Zorionak. Lantaldeekin salto handia eman da, lan praktikorantz; eta honek gehiago esploratzeko eta esperimentatzen jarraitzeko aukerak ematen ditu. Luxu bat da hemen parte hartzen duen talde humanoa. Nik jarraitu nahiko nuke parte hartzen, nahiz eta herritar moduan izan (teknikari gisara ezingo banu).

- Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzaren babesa eskertu nahi dut, Joseba gogoan izanez eta Mikelen papera aitortuz. Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza lan ikaragarria egiten ari da, herritarrentzat eta herritarrekin. Kontseiluko kide gisara, guztion konpromisoa eskertzen eta zoriontzat dut. Natorren bakoitzean beti eramaten dut zerbait; talde anitza da oso, eta asko entzuten dugu elkar.
- Erraza izaten ari ez dela jakinda, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzan oso ondo ari zaretela uste dut; iruditzen zait zuzendaritza eta partaidetza bere tokia hartzen ari dela Aldundian, eta horrek ez du bueltarik. Bestalde, eskerrik asko: oso gustura sentitzen naiz Kontseiluan, eta iruditzen zait talde bezala lan egitea lortu dugula, bakoitzak bere tokitik.
- Zorionak Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzari: zuen lana ikusi egiten da Gipuzkoan eta baita kanpoan ere. Kontseiluari dagokionean, esandako gauzak praktikara eramatea garrantzitsua da, eta ildo horretan fruituak ikusten ari gara. Taldearen potentzialtasuna eta konfiantza azpimarratu nahi ditut.
- Kontseiluaren kasuan, arauak, burokrazia eta prozedurak ez dira muga izan; hori ikasi dugu eta transmititu nahi dugu. Sormenetik aritu gara. Giroa gakoa da, goxotasuna bilatzen dugu. Oso aberasgarria izan da bidea. Eta horretan lagundu du ere lidergo berezi batek (Joseba eta Mikel).

- Parte hartze erreala plazaratzea oso garrantzitsua da. Garai zailetan egonda (indibidualtasuna, konpromiso eza...), guk hemen hazia bota dugu, eta zaintzea dagokigu. Parte hartzean sinisten dugunez, eraiki eta zabaldu.
- Luxua da Kontseiluaren parte izatea. Eskerrik asko Mikeli eta Itziari, eta baita Josebari ere. Dinamizazioa ere lagungarria izan da. Datorrenak, eman diezaiola jarraipena.
- Joseba oroituz, taldearen aniztasuna eta aberastasuna nabarmendu nahi ditut. Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak urrats bat eman du aurrera.
- Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza ikusgai egin da. Hemen, Kontseiluan, ondo pasa dugu lanean. Zorionak eta segi dezagun, asko dago eta egiteko.
- Abian zegoen trenera sartu ginen. Talde hau jartzen dut balioan, eta horizontalean lan egiteko duen konpromisoa. Jarrai dezagun! Eta eskaera bat: zuek ere segi ezazue kide izaten.
- Eskerrik asko Josebari, Mikeli, eta Kontseiluko kideei, hau elkarrekin sortzen ari garelako. Mikel: baliabide gehiago behar ditugu Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzan, suertatzen doazen gai guztiei ondo heldu ahal izateko.
- Nire aldetik, eskertu. Kontseiluan lehendabiziko aldia izanik, dagoeneko asko daramat saiotik. Eta asko gustatu zaizkit giroa eta harreman horizontalak.

Gai formalak

4

Gizarte Kontseilua osatzen duten erakundeak berritzea.

Indarrean dagoen azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauak, Herritarren Partaidetzari buruzkoak, 38. artikuluan jasotzen du Gizarte Kontseiluaren osaera, eta zehazten du honako hauek osatuko dutela: Gipuzkoako gizarte garrantzitsuak diren hainbat eremutan beren gizarte-jardueran nabarmendu diren pertsonak, eta herritarren parte-hartzean aditua, teorikoa edo praktikoa den gaitasunagatik nabarmendu diren pertsonak.

Halaber, 25/2017 Foru Dekretuak 4.5 artikuluan jasotzen duenez, Gizarte Kontseilua osatzen duten pertsonak Foru Aldundiaren agintaldian egongo dira Kontseilu horretako kide, eta Foru Aldundia amaitzean amaituko da, berriz hautatzearen kalterik gabe.

Horrela, 2023ko bigarren seihilekoan, Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-Sozialaren Zuzendaritza Kontseiluaren konfigurazio berria aritu da lanean. Ahal den neurrian, ahalik eta ordezkari gehienei eusteko irizpideari jarraitu zaio.

Prozesu horren ondorioz, 2023-2027 aldirako Gizarte Kontseiluaren eraketa honela geratuko da:

Erakundeak	Pertsonak
Gobernantza Diputatua	Iruñe Berasaluze Lazcano
Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-Sozialaren Zuzendaritza	Mikel Pagola Tolosa
Tolosako Udala	Garikoitz Lekuona Izeta
Aretxabaletako Udala	Nerea Zubillaga Herran
Aiako Udala	Ion Ander Azpiroz Otegui
Gazteriaren Euskal Kontseilua	Iratxe Uriarte Eiguren
Nagusilan	Mikaela García García
AGIJUPENS	Jose Agustín Arrieta Eguiguren
Matia Fundazioa	Maider Azurmendi Ormazabal
Gobernuz kanpoko erakundeak (GGKE)	Izaskun Azurmendi Irastorza
Foru Aldundiko GUNEA	Katia Reimberg
Eusko Jaurlaritzako Gobernu Irekiaren Zuzendaritza	Miren Martiarena Barkaiztegi
Donostiako Udaleko udal-zeharkakotasuneko arduraduna	Eva Salaberria Artano
Politika publikoetan, ekintza komunitarioan eta herritarren parte-hartzean aditua	Fernando Pindado Sánchez
Herri-administrazioetako kolaboratzailea eta aholkularia herritarren parte-hartzean	Antxon Gallego Solaetxe
EHU Unibertsitatea	Ainhoa Novo Arbona
Deusto Unibertsitatea	Mabel Segú Odriozola
Mondragon Unibertsitatea	Nagore Ipiña Larrañaga
Herritarren parte-hartzean, teknologian eta sare sozialetan aditua	Adriana Martínez Sans
Herritarren parte-hartzean, teknologian eta sare sozialetan aditua	Xabier Murua Aguiriano
Foru Aldundiko Aurrekontu Zerbitzua	Coro Iriarte Mendiola
Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua	Itziar Calvo Garmendia

emaitzak 2023

Lantaldeen aurrerapenak

1 "Partaidetza aztergai: nahi, ahal, jakin" elkarrizketazikloa bultzatzea, antolatzea, garatzea eta ebaluatzea, UPV/EHUko Udako Ikastaroen UIKekin lankidetzan.


Gizarte Kontseiluak bultzatuta, elkarrizketa irekien ziklo honek **helburu hauek** izan ditu:

- Aldundiaren eta herritarren arteko topaguneak eta zuzeneko komunikazioak sortzea.
- Gaur egun Gipuzkoan garatzen diren partaidetza-praktikak partekatzea eta horiei buruz hausnartzea; eta beharrak eta aukerak aztertzea.
- Parte-hartzearen inguruko funtsezko 3 gairi arreta jartzea: motibazioa (konfiantza), aukera (baldintzak eta aukerak) eta ezagutza.
- Hausnarketa partekatua egitea Gipuzkoako gizarteko hainbat eragileren artean: herritar antolatuak edo ez, arduradun politiko eta teknikoak, enpresa espezializatuak eta unibertsitateko langileak.
- Hausnarketa, azterketa, kritika, auto-kritika eta sorkuntza kolektiborako gune seguru bat sortzea.

Ezarritako helburuei erantzuteko, Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-Sozialaren Zuzendaritzak, Gizarte Kontseiluarekin etengabeko koordinazioan, **3 topaketa antolatu ditu 2023ko urtarrilaren 26an, otsailaren 25ean eta martxoaren 24an.**



3 topaketetan **205 asistentzia** zenbatu dira guztira. Zehazki, honako hauek izan dira jardunaldi bakoitzean **parte hartu duten pertsonak**:



Sexuaren arabera, bertaratutakoen %70 emakumeak izan dira, %29 gizonak eta %1 ez-bitarrak.

3 saioetan parte hartu duten pertsonen **profilak** askotarikoak izan dira: herritarrak, elkarteak, unibertsitatea, fundazioak/kooperatibak, enpresa espezializatuak eta administrazioa. Ildo horretatik, esan daiteke bete egin dela ikuspegi eta errealitate desberdinetatik topagune bat sortzeko berariazko helburua.


Hiru bilkuretan landutako **edukiak** Gizarte Kontseiluak definitutako gaietan jarri du arreta:

- Lehen geltokia, Azpeitia: Mesfidantzatik konfiantzara.
- Bigarren geltokia, Miramar: Partaidetzan arrakalak, nahi eta ezin.
- Hirugarren geltokia, Okendo: Partaidetza-ON. Zer dakigu parte-hartze digitalaz? Zenbat dakigu eta zenbat ikasi behar dugu?

Eta hori guztia **Gizarte Kontseiluak eta Gobernu Onaren eta Berrikuntza Politiko-Sozialaren Zuzendaritzak zehaztutako esparruan**:

- Herri-administrazioak sustatzen duen herritarren parte-hartzean oinarritutako hausnarketa.
- Gipuzkoako Herritarren Partaidetzari buruzko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauak markatutako testuinguruan.

Parte-hartzaileen elkarrizketa-zikloaren **ebaluazio orokorrari dagokionez**, honako hau da:



Bestalde, Gizarte Kontseiluak bere ebaluazio kualitatiboa egin du 2023ko maiatzaren 12ko bilkuran, elkarrizketen zikloaren argi-ilunak eta etorkizunean kontuan hartu beharreko gaiak nabarmenduz.

Argiak:

- Formakuntza eskaintzea beti da ona; eta lankidetzan egindakoa bada –kasu honetan Kontseilua eta UIK-, are gehiago.
- Prototipatze prozesu baten emaitza izan da –“frogatu ziklo modura planteatzea, formatu desberdinetan, toki anitzetan...”-. Ondo joan da, eta jarraipena merezi du UIKekin batera.
- Hizlarien aniztasuna: nondik datozen, eta nondik hitz egin duten.
- Herritarren parte hartzea eta testigantzak potenteak izan dira mahai inguru eta antzekoetan.

Itzalak:

- Zuzenago joan publikoen bila, eta lagungarriak izan daitezkeen estimuluak bilatu: hobari modura dirulaguntzetan?
- Elkarte eta herritar gehiagorengana iritsi beharko genuke. Eta politikariren partaidetza ere bilatu.

Aurrera begira:


- Formatua mantendu: haria, saio desberdinak, formatu-toki anitzak.
- Leloa landu, aurtengoa oso argia eta erakargarria zen.
- Edukietan:
 - Loturak bilatu: adibidez, tresna-kutxarekin.
 - Kasu-diskurtso praktikoak lehenetsi, planteamendu teorikoen eta paradigmaticoen ordez.
 - Parte hartzaileen protagonismoa bilatu: herritarren ahotsak eta bizipenak plazaratu, partaidetza eskubidea eta ardura ere badela azpimarratuz.
 - Egiten denaren aitortza txertatu programetan.
- Horrek guztiak inbertsioa eskatzen du (hau ez da gastua, inbertsioa baizik), epe luzean mantendu beharrekoa.

Elkarrizketa-zikloa antolatzeko eta **garatzeko behar izan den inbertsioari** dagokionez, honako hau izan da:

Kontzeptua	Inbertsioa	Portzentaia
Fazilitazioa	25.603,00 €	% 38,45
Publizitatea	21.858,69 €	% 32,82
Itzulpen zerbitzua	4.157,35 €	% 6,25
Hizlariak	1.040,00 €	% 1,56
Ziklo bakoitzeko itxiera-jarduerak	2.388,82 €	% 3,58
Catering-zerbitzua	3.088,80 €	% 4,63
Aretoen alokairua	4.358,60 €	% 6,55
Koordinazio gastuak	4.108,60 €	% 6,16
GUZTIRA	66.603,86 €	% 100,00

Azkenik, elkarrizketa-zikloaren antolaketan, garapenean eta ebaluazioan **sortutako dokumentazio guztia** hemen dago eskuragarri:

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/partaidetza/-/28389297-9>



Lantaldeen aurrerapenak

2 "Herritarren partaidetzarako tresnak eta esperientziak" bilatzeko eta biltzeko lantaldea garatzea eta lehen zirriborro-txostena idaztea.

Lantalde honen helburu nagusia izan da Herritarren Partaidetzari buruzko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauan jasotzen diren parte hartzeko tresnen inguruan kalitatezko ezagutza eta informazioa sortzea.

Horretarako, taldeak lan-prozesu hau jarraitu du:

- "Parte hartzeko tresnen kutxarako" **fitxa** bat diseinatzea, tresna bakoitzeko funtsezko informazioa biltzeko.
- Arauan jasotako tresnak era batera edo bestera garatzen dituzten **26 esperientzia** –eremu geografiko desberdinetakoak– identifikatu eta aztertzea.
- Tresna bakoitzaren ezaugarri nagusiei eta garrantzizko informazioari buruzko **lehen txostena** idaztea, tresna guztietarako baliagarriak diren gomendio orokorrekin batera. Hori guztia, helburuen eta testuinguru zehatzaren arabera parte-hartze tresnarik egokiena zein den erabakitzeko erraztasunak emateko.

Aztertutako tresnei dagokienez, honako hauek izan dira:

- Deliberazio parte-hartzaileko prozesuak.
- Herri kontsultak.
- Foru-arauen aurreproiektuak egiteko parte hartzea.
- Foru-arauen aurreproiektuak egiteko herritarren ekimena.
- Herritarren parte-hartzea aurrekontuak egiterakoan.
- Herritarren epaimahaiak.
- Entzunaldi publikoak.
- Partaidetzazko eztabaidarako tresna osagarriak.

Era berean, taldearen ustez, egindako **lanaren aplikazio praktikoak** askotarikoak izan daitezke. Besteak beste:

- Edozein interesdunentzako gida moduko dokumentu bat.
- Erabakiak hartzeko dokumentu exekutiboa.
- Prestakuntza-planetarako materiala.

Azkenik, jarraitutako **lan-prozesuaren** konplexutasuna eta, aldi berean, bere aberastasuna azpimarratu dira: aztertutako esperientzien aukeraketak bere zailtasuna izan du, eta, ondoren, tresna bakoitzaren azterketak hausnarketa sakonak eragin ditu taldean.



Gizarte Kontseiluak txostenaren hasierako edukia ezagutu du 2023ko maiatzaren 12ko bilkuran; **egindako gogoeta eta balorazioa honako hau da:**

- “ Txostena mardula da, egituratua, eta ordena ematen die hainbat gaiari.
- Lagungarria da tresna desberdinen aukerak esplizitatzea, erabakiak hartu ahal izateko.
 - Tresna desberdinen aplikazioan, malgutasuna eta testuinguru desberdinetara egokitzea beharrezkoak dira.
 - Tresna eta aukera hauek lurraldean garatzeko, Foru Aldunditik garapen normatibo batzuk sustatzea funtsezkoa da, erakunde barruko antolaketa-erronkan eragiteko eta aldaketa kulturala sustatzeko.
 - Honek guztiak formakuntza bat eskatzen du: denentzat.
 - Ezagutzatik praktikara pasa behar da; egiten hasi, eta esperientziatik ikasi.
 - Kapa edo dimentsio digitala ahaztu gabe: tresna horietan, egon behar du. Eta horretarako aliantzak funtsezkoak dira.

Gainera, prozesuaren emaitzak erakustea, ezagutaraztea eta partekatzea **gomendatzen du Gizarte Kontseiluak**, prozesua amaitzen denean.

- “ Zehazki, gomendioa honakoa da:
- Txostena gida moduko batean bilakatzea: fitxa guztiak batera jasotzen dituen dokumentu bateratu bat; zein partaidetza-tresna dauden ezagutzeko eta tresna egokiena aukeratzeko-abian jartzeko lagungarria dena.
 - Horretan laguntzeko eta batez ere politikariei begira txostenaren laburpen exekutibo bat prestatzea.
 - Sortutako guztiak eskura eta ikusgai jartzea webgunean.

Azkenik, adierazi behar da egindako lehen txostena barne-berrikuspeneko prozesuan dagoela Zuzendaritzaren aldetik 2023ko abenduan.

GIPUZKOAKO HERRITARREN PARTAIDETZARAKO GIZARTE KONTSEILUA

2023

urteko txostena

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



HERRITARREN
PARTAIDETZA